



# SANTIAGOKO TXIKI KROSA

## ARAUDIA

### 1. ARTIKULUA

SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldeak, Santiagoko auzokideen elkartearen laguntzarekin, **Santiagoko Txiki Krosa** antolatuko du 2023ko Uztailaren 25eko goizarako. Txikienei zuzendutako lasterketa da Santiagoko auzotik prestatutako ibilbide lau batean helduen lasterteketa herrikoia baino lehen.

### 2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan 1 eta 13 urte bitarteko edozein haurrek parte hartu ahal izango du. 2009 urtetik (hau barne) aurrera jaiotako haurrak. Txikienek beraien gurasoek lagunduta irten ahal izango dute.

Partaidetza 200 haurretan dago mugatua eta izen emateak inskripzio ordenean itxiko dira.

### 3. ARTIKULUA - INSKRIPZIOAK

Inskripzioa on-line izango da helbide honetan: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) -en eta **erabat dohain** izango dira.

Izen-emateak uztailaren 24ean itxiko dira (14:00tan) eta proba egingo den egun berean izena eman ahal izango da irteera puntuan (Santiagoko auzokideen egoitzaren parean), dortsalak bukatu ez izanez gero.

### 4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA

Irteeran, 9:00etatik 10:00etara. Antolakuntzak abisatzen du hobe dela garaiz egitea gero ilaran egon beharrik ez izateko, lasterketak ezin dira atzeratu eta.

### 5. ARTIKULUA - LASTERKETEN ORDUTEGIAK

Haurren lasterketak txikienekin hasiko dira goizeko 10etan eta haundienekin amaituko dira 10:25etan.

## **6. ARTIKULUA.- SARIAK.**

Haur guztiak bere saria izango dute podiora igoaz eta SUPER AMARAREN eskutik emandako hamaiketako oparoa jasoaz.

## **7. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA**

Parte hartzaile guztiek, izena ematen duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, izena ematen dutenentzako datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabil ditzan, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldeak duen helbidean. (Ramon Iribarren kalea, 4 behe atzealdean, 20304 Irun)